

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

Nalevol Rusticas y explotaciones SLrekin sinatu beharreko hirigintza-hitzarmenaren proposamena jendaurrean jartzea, Samaniego 2 poligonoko 27 lurzatiko Udal Arau Subsidiarioek bide publikotzat kalifikatutako espazioaren lagapen- eta urbanizazio-betebeharrak atzeratzeko

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik, iragarki honen bidez jendaurrean jartzen da Nalevol Rústicos y explotaciones SLrekin sinatu beharreko hirigintza-hitzarmenaren proposamena, 2 poligonoko 27 lurzatiko Udal Arau Subsidiarioek bide publikotzat kalifikatutako espazioaren lagapen- eta urbanizazio-betebeharrak atzeratzeko. Horiek horrela, 29 egun balioudun izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera espedientearen udal bulegoetan aztertzeko (Sor Felicias, 1; Samaniego) eta egoki jotzen diren alegazioak aurkezteko.

Horretarako, aipatutako hitzarmenaren testu osoa jasotzen da jarraian.

“Bildu dira

Batetik, M. P. G. I., NAN zenbakiduna, Arabako Samaniegoko alkate-lehendakari zereginetan.

Bestetik, I. Z. A., NAN zenbakiduna, Nalevol Rústicos y explotaciones SLren (IFZ:.....; Kale Nagusia, 45, 1. Bilbo) administratzaile zereginetan

Adierazten dute

Lehenengoa. Nalevol Rústicos y explotaciones SL enpresa Samaniego herriko (Araba) 2 poligonoko 27 lurzatia katastro erreferentziako lurzatiaren jabea da.

Bigarrena. Nalevol Rústicos y explotaciones SL enpresak obra baimena eskatu du lurzati bat egokitzeko, kanpoko aparkaleku gisa erabiltzeko, honako higiezin honetan: la Calleja kalea, 1; katastro-erreferentzia: 2 poligonoa, 27 partzela, Samaniego.

Hirugarrena. Samaniegoko Udal Arau Subsidiarioetan (1995eko martxoaren 8an onartu ziren behin betiko, eta ALHAOn argitaratu zen egunean sartu ziren indarrean, 1996ko urriaren 11n) eta UE-1ari buruzko Arau Subsidiarioen 2. aldaketa puntualean ezarritakoaren arabera, behin betiko onesten eta indarrean jartzen dira (ALHAO, 2001eko otsailaren 14koa): lurzatia hiri-lurzoru sailkatu da eta 1. mailako bizitegi-lurzoru eta erabilera pribatuko espazio libre kalifikatu.

Laugarrena. Samaniego Udal Arau Subsidiarioetako 209. artikuluan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 26. artikuluan arabera, Samaniegoko 2 poligonoko 27 partzela orube bihurtzeko, aldeztu aurretik bide publiko kalifikatutako espazioaren lagapena eta urbanizazioa egin behar da.

Bosgarrena. Alberto Julián Vigalondo udal-arkitekto aholkulariak horri buruz 2020ko maiatzaren 25ean egindako hirigintza-txostena ikusi da. Honela dio hitzez hitz:

“Araudi aplikagarria

Samaniegoko Udal Arau Subsidiarioak (AS) (1994/126 espedientearen). Behin betiko onespena: 1995eko martxoaren 8a (ALHAO: 1995eko irailaren 3a); indarrean sartzea: ALHAO, 1996ko urriaren 11.

Herrigune historiko Birgaitze Integratuko Plan Berezia (1997/150 espediente). Behin betiko onespena: 1997ko uztailearen 3a; indarrean sartzea: ALHAO, 1997ko abuztuaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.

Oharrak

Udalak aginduta egin da aipatutako lurzatian lerrokadurak aldatzearen egokitasunari eta lurzatiaren aurrealdea urbanizatzaren komenigarritasunari buruzko txosten hau.

Lurzatia hiri-lurzoru sailkatu da eta 1. mailako bizitegi-lurzoru eta erabilera pribatuko espazio libre kalifikatu.

Arau Subsidiarioen 209. artikuluan eta LHLren 26. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, lurzatia orube bihurtzeko, alde aurretik bide publiko kalifikatutako espazioaren lagapena eta urbanizazioa egin behar da.

Gaur egun, lurzatia harrizko horma batek inguratzen du. Horma horrek itxura ona du, historikoa da eta hiri irudian ondo integratuta dago.

Kalea ondo urbanizatuta dago, hormigoi inprimatuzko zoladurarekin, eta itzala egiten dioten bi zuhaitz ditu aurrealdean.

Zalantzarik gabe, hiri-ingurunean integratuta egoteak, lerrokadura historikoa izateak, lehendik dagoen bidearen zabalera ... ez du gomendatzen hura eraistea eta atzera ematea.

Ondorioa

Kontuan hartu behar da lerrokadura horren berrikuspena, udalerrian idazten ari den Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriari begira, eta lehendik dagoen horma finkatu eta mantendu. Era berean, eraikuntza etxadian dauden eraikin historikoen lerrokaduren aldaketa birplanteatu beharko litzateke."

Seigarrena. Samaniegoko Udala herri horretarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko eta onartzeko izapideak egiten ari da; zehazki, gaur egun, aurrerapena egiteko fasean dago.

Horiek horrela, hitzarmen hau formalizatzen da:

Lehenengoa. Nalevol Rusticas y explotaciones SL enpresak konpromisoa hartzen du Samaniego (Araba) Udal Arau Subsidiarioek bide publiko gisa kalifikatutako lurzatia lagatzeko eta urbanizatzeko (katastro-erreferentzia: 2 poligonoa, 27 lurzatia, Samaniego (Araba)), lurzatia kanpoko aparkaleku erabilerrako egokitze aldera obra baimena lortzeko.

Bigarrena. Lagapen- eta urbanizazio-konpromisoa ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta, Samaniegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onesteko agirian, desagertu egiten bada Samaniegoko 2 poligonoko 27 lurzatia bide publiko kalifikatzeko espazioaren lagapena eta urbanizazioa egiteko betebeharra.

Hirugarrena. Lagapen hori eskritura publikoan jasoko da, eta urbanizazioaren garapena, berriz, gauzatu egingo da, baldin eta Samaniegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren behin betiko onespenean agiriak bere horretan uzten badu bide publiko kalifikatutako espazioaren lagapena eta urbanizazioa egiteko betebeharra, Samaniegoko 2 poligonoko 27 lurzatian."

Samaniego, 2020ko ekainaren 23a

Alkatea

M. PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE